

**"Naturak duen
handitasunean gizakia
txiki erakustea gura
izan dut"**

Lehior Elorriaga
Argazkilaria • 25. orrialdea



**Gestampeko test azkarretan
positiboak egon direla-eta, zalaparta
mediatikoa sortu da Durangaldean**

Abadiño | Edizioa ixterako, test azkarretan positibo emandako 8 langileetatik lauk negatibo eman dute PCR proban. • 10



**"Jatekoa eskatzera
joan behar hori ez
dago uste dugun
bezain urruti; edonori
gertatu ahal zaio"**

Jateko eske elikagaien bankura jo behar izan duten herritarren kopurua nabarmen igo da pandemia hasi zenetik hona. Durangaldeko hainbat herritan ia bikoiztu egin da eskaria. ANBOTOK elikagaien bankura jo behar izan duen herritar batez egin du berba • 2-3



**Maskara,
tabernetako
jokabide erlaxatuei
aurre egiteko**

Durango | Alde Zaharreko hainbat tabernarik euren establezimenduetan maskarak ezinbestean erabiltzeko erabakia hartu zuten joan zen barikuan, Osasun Sailak araua indarrean sartu baino hainbat egun lehenago. 4

ALKIMAX
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C • Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 • Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



AIRE GIROTUAK



SPOT COOLER SC-6200



SPOT COOLER SC-7400



SPOT COOLER SC-10500



SPOT COOLER SC-17500



Covadonga Noval eta Susana Lorenzo JAED elkartearen biltegian.

Elikagaien bankura joan behar izan dutenen kopurua ia bikoiztu egin da pandemia hasi zenetik

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Osasun eta ekonomia krisialdiak eztanda egin zuenetik hona, igo egin da janari eske elikagaien bankura jo behar izan duten herritarren kopurua. Bizkaiko elikagaien bankuak emandako datuen arabera, martxo hasieran 25.000 bat herritar laguntzen zituzten. Kopuru hori 33.000ra pasa da ekainaren bukaeran; hau da, eskariak %32 hazi dira. Eta, Durangaldea ez da salbuespena. Igoera egon da gurean ere, eta kasu batzuetan, baita egoera larritu ere.

Covadonga Noval (Durango, 1960) eta Susana Lorenzo (Sopela-

na, 1968) JAED elkarteko boluntarioak dira. Elkartean Iurretako eta Durangoko herritarrek laguntzen dituzte gehienbat, eta egunotako eskarien gorakada "izugarria" izan dela diote. Datu bakar batek argitzen du egoera: martxoaren hasieran, pandemia ailegatu baino lehen, 196 familia laguntzen zituzten. Ekaina, ostera, 284 familia artatuta itxi dute. %45eko igoera izan dute eskarietan.

"Igoera handia izan da. Konfinamendua hasi zenean, administrazio publikoetako gizarte langileek gugana bideratu zituzten herritarrek. Jendea lanik barik eta

ezelako baliabiderik barik geratu da bat-batean. Alokairuari ezin eutsita, umeekin, jatekorik barik. Egoera zaila da", adierazi du Covadonga Novalek. Orain badirudi

Elikagaiak eskatzeko beharizana lotuta doa prekarietatez betetako lan bat izatearekin

igoera horrek etetera egin duela, baina hasiera batean kolpetik etorri zen dena. Izugarria izan zen. Telefonoa hartu. Orria bete. Dei bat

jaso orain. Beste dei bat gero. Guztiari ezin helduta moduan aritu gara, geratu barik".

Prekarietatearen eragina

JAEDeko boluntarioen esanetan, beltzean lan egiten duten beharginak izan dira eurengana gerturatu diren herritar gehienak; hau da, lan-kontratu barik lan egiten dutenak. Etxeetako garbitzaileak eta pertsonak zaintzeaz arduratzen diren langileak daude horien artean. Susana Lorenzoren esanetan, lotura zuzen bat dago lan prekario baten eta eskarien gorakadaren artean. "Lana egin eta beltzean ko-
bratzen duen jende asko etorri da guregana. Iruditzen zait badagoela lotura zuzen bat. Lanik barik gelditzen zara, eta noski, kontraturik ez duzunez, ez duzu langabeziagatiko prestaziorik, ez duzu beste edonora joateko aukerarik, eta ez duzu bestelako diru-sarrerarik. Horrelako kasu dezentetik ikusi ditugu. Artatu ditugun gehienak ez daude ERTE egoeran.

Estigmen kontra

Jatekoa eta laguntza eskatu behar horrek beste ezaugarri bat ere badu atzean: eskatzearen edo pobrezia egoeratik gertu gaudela onartzearen estigma. Novalek eta Lorenzok horrelako egoerak bizi dituzte

eskatzaileen artean. "Batzuei kosta egiten zaie gugana etortzea. Hona etorri eta elikagaiak hartzeko ilara egin behar denez, besteek zu hor ikusiko ote zaituzten beldur hori dute. Hasiera batean jendea-
ri esaten diozu elikagaiak hartzeko aukera duela eta erantzuten dizuna da, momentuz, gurago duela itxaron. Gero, konturatzen dira beharizana dutela, eta etortzea baino ez zaie geratzen. Kasu batzuetan, diskrezioa zaintzea eskatzen digute, eta entregatze ordutegiak apur bat moldatzen ditugu", adierazi du Novalek.

Elkartasunerako deia

Pandemiaren hasieran elikagai eskasia gertu izan zutela azaldu dute JAEDeko kideek. Orain egoera nabarmen hobetu da, eta eskerrak eman dizkiete herriko dendari-
ei, arrandegiei eta Rio de Oro elkarte-
ari, egindako dohaintzengatik. Dena dela, laguntzen jarraitzeko gonbita egin diete herritarrei. Izan ere, JAEDek ez daki zer gertatuko den bere finantzaketa iturriekin: Durangoko jaiak bertan behera gelditu direla-eta, jaietako zapien salmentarekin zer egin pentsatzen ari dira, baita urtero gabonetan egin ohi duten tonbolarekin zer egin ere. Herritarrek deitu dituzte bazkide egin eta JAED bultzatzera.

Bizkaiko elikagaien bankuak hainbat ordezkari-
tza ditu Durangaldean. Elkar-
teren batek edo boluntario
talderen batek kudeatzen
ditu. Abadiñon, Duran-
gon eta Iurretan (JAED),
Elorri eta Berrizen ditu
banaketa sareak. Herri ba-
koitzeko arduradunekin
harremanetan ipini da AN-
BOTO. Elikagaien eskaria
igo egin da herri guztietan,
salbuespenik barik.

ABADIÑO

50 familia
martxoan
 73 familia
uztailean
Igoera: %46

DURANGO - IURRETA

196 familia
martxoan
 284 familia
uztailean
Igoera: %45

ELORRIO

16 familia
martxoan
 32 familia
uztailean
Igoera: %100

BERRIZ

36 familia
martxoan
 42 familia
uztailean
Igoera: %16

“Jatekoa eskatzeak lotsa ematen du, baina beti izan dut argi lapurretan egitea baino gurago dudala eskatu”

Egoera ekonomikoak hala behartuta elikagaien bankura jo behar izan duen Durangaldeko herritar bat elkarrizketatu du ANBOTOK



Irene

Egoera ekonomikoak hala behartuta, Durangaldeko elikagaien banku batera jo behar izan du laguntza eske

eta gizarteratuta dugula uste duzu?

Esango nuke badugula arazo honekiko kontzientzia. Supermerkatuetan elikagaiak batzeko kanpainak egin ohi dira. Inguruan ditugu. Baina, ez duguna barneratuta da hau edonori pasa dakiokela.

Hau edonori pasa dakiokela ez dugu barneratuta?

Ez, ez. Gure iruditegi kolektiboak uste du egoera hau baliabiderik ez dutenek bizi dutela. Migranteak, etorkinak lotzen ditugu egoera honengaz. Baina, hau edozein etxetan gerta daiteke. Bakoitza bere burbui-lan barruan bizi da, eta ez dugu uste egunen batean horrelako egoera batean egon gaitzkeenik. Lana izatetik, etxea izatetik, janaria izatetik ezer ez izatera pasatzen zara berehala. Oso gogorra da, eta buruari buelta pila bat ematen dizkiozu.

Egun hauek zer moduz eraman dituzue psikologikoki?

Oso luzea eta etsigarria izan da konfinamendua. Ez genekien ezta biharamunera arte ailegatuko ote ginen ere, biharamunean ogia erosteko biderik izango ote genuen. Ez genekien deiren bat izango ote genuen, lan-eskaintzaren bat ailegatuko ote zen. Ziurgabetasun handia izan dugu, eta oso gogorra izan da. Senarra ni baino ezkorragoa da, eta etsipen handiagoz bizi izan du.

Eta, orain? Zelan zabilzate animoz?

Tunelaren amaieran argi apur bat ikusten hasi gara. Senarra lanean ari da, eta nik ere epe motzera lana topatzea gura dut. Soldata bakarria dugu, baina, behintzat, hasi gara atzean utzitako fakturak ordaintzen, egoerari buelta ematen. Bai, argi apur bat ikusten dut tunelaren amaieran.

Badago gehitu gurako zenukeen ezer?

Azpmarratu gura dut egoera hau ez dagoela uste dugun bezain urrut. Edonori pasa dakiok. Inor ez da honetatik libratzen. Kontzienteago izan behar dugu, eta solidarioagoak hurkoekin. Nire egoera hobetzen denean, elikagaien bankuari dohaintzak egiteko ohitura hartuko dut. Ahal dudana neurrian lagundu egingo dut. Nik orain behar izan dudana besteren batek behar izango du hurrengo batean.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Irenek elikagaien bankura jo behar izan du jateko eske. Sekula ez du halako beharrianik eduki, baina pandemia hastearekin batera egoera ekonomikoa larritu zaiola-eta, laguntza eskatu behar izan du ezinbestean. Elkarrizketatuak gurago izan du bere identitatea ezkutuan gorde, eta alegiazko 'Irene' izenagaz aurkeztu du bere burua.

Pandemiaren erdian goitik behera aldatu zitzaizuen etxeko egoera ekonomikoa.

Martxoan, nire soldata zen etxeko diru-sarrera bakarria. Senarra lanik barik zegoen, eta agortuta zuen langabeziagatik prestazioa. Nire lan-kontratuaren amaiera data martxoaren 26a zen, eta, noski, konfinamendua une horretan iritsi zenez, enpresak ez zidan kontratua berritu. Ez nuen ERTE baterako aukerarik. Senarra eta biok etxean geratu ginen. Hortik aurrera, nire langa-

beziagatik prestazioa izan zen etxeko diru-sarrera bakarria. 300 euro hilean.

300 euro. Nola egiten zaio aurre hilabeteari?

Fakturak eta ordainketak atzeratuta. Etxebizitzaren alokairuari aurre egin ahal izateko, laguntzak eskatzen hasi ginen. Baita elikagaiak eskatzen ere. Curriculumak eta mezuak alderik alde bidaltzen aritu gara, leku guztietara, etengabe. Konfinamendua apur bat arintzen hasi zenean, senarrari lan-eskain-

“**Bolada batez nire langabeziagatik prestazioa izan da etxeko diru-sarrera bakarria: 300 euro**”

tza bat ailegatu zitzaion. Osasun azterketa bat egin zioten, eta lanean hastea lortu zuen. Gaur egun, lanpostu horretan segitzen du. Hilabete eta erdi darama bertan. Nire langabeziagatik prestazioa agortu egin da, eta orain bere soldata da etxeko diru-sarrera bakarria. Atzeratutako fakturak ordaintzen hastea lortu dugu. Alokairuaren ordainketa, ura, argia... Argiaren kasuan, adibidez, bost faktura pilatu zaizkigu.

Eta, egoera horretan, elikagaien bankura jo behar izan duzue ezinbestean.

Alokairua ordaindu ahal izateko diru-laguntzak irten zirela jakin genuenean, udaleko gizarte-laguntzaileagaz ipini ginen harremanetan. Elikagaien inguruko kezkak azaldu genizkion, eta berak ipini gintuen kontaktuan elikagaien bankuko kideekin. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak zeuden, eta jakin genuen jende asko zegoela gure moduko egoeran.

Jatekoa eskatu behar hori estigmaz ikusten al dugu gizartean?

Estigma baino gehiago, lotsa delakoan nago. Nik, behintzat, lotsa sentitu dut. Sekula ez dugu ezer sobera izan, baina inoiz ez gara egon jatekoa eskatu behar izateko moduko egoeran. Janaria eskatu behar horrek lotsa ematen du, baina beti izan dut argi lapurretan egitea baino gurago dudala jatekoa eskatu. Etxean jatekoa behar genuen.

Elikagaien beharrian egoa badago. Arazo hori behar bezala ikusarazita

“**Ez dugu uste noizbait honelako egoera batean egongo garenik, baina hau edozeini gertatu dakiok**”

Maskarak jartzeko derrigortasuna, Alde Zaharreko tabernariak sumatzen zuten neurria

Durango Alde Zaharreko Tabernarien Elkartek joan zen barikuan erabaki zuten maskarik jantzen ez zuten bezeroei ez zerbitzatzea euren tabernetan eta jatetxeetan

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Eguenetik derrigorra da establezimendu barruetan zein kalean maskarak erabiltzea, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere. Baina, badira Jaurilaritzako Osasun Sailaren agindua heldu aurretik neurriak hartzea erabaki zutenak. Durango Alde Zaharreko Tabernarien Elkartekoak dira horren adibide. Elkartek honetako kide diren tabernetan, joan zen barikutik ez diete zerbitzatzen maskara ipintzen ez duten bezeroei. Birusen berragertze fokuek eta Alde Zaharrean azkenaldian izandako jende pilaketaren batek eraman zituen erabaki hori hartzera.

Maskarak jartzeko derrigortasuna sumatzen zuten zerbaite dela

Lehenengo egunak gogorak izan ziren, bezero denei azalpenak eman behar zizkietelako

adierazi du Rugby Tabernako Juan Manuel Iriondok. "Apur bat martxoaren erdialdeko egoera ekartzen zigun gogora, eta ikusten genuen guk geure aldetik zerbaite egin behar genuela", adierazi du. Lehenengo egunak gogorak izan ziren, tabernara joaten ziren bezero denei euren erabakiaren inguruko azalpenak eman behar zizkietelako. Orain, oster, kontrakoa gertatzen da. "Maskara denek nahitaez jarri beharrek lana errazten du", Iriondoren esanetan.



Durango Goienkaleko irudia.



MILA EIZMENDI

DAZT-eko presidentea

"Erlaxazio hori denoi gertatu zaigu; bai bezeroei, eta baita geuri ere"

"Apur bat erlaxatu gara"

Durango Alde Zaharreko Tabernarien Elkarteko (DAZT) presidentea den Mila Eizmendi ere ez du ezustean harrapatu Jaurilaritzaren erabakiak. Normaltasun berrian, denbora joan ahala, "apur bat erlaxatu" egin garela uste du. "Erlaxazio hori denoi gertatu zaigu; bai bezeroei, eta baita geuri ere", zehaztu du. Eta, egoera nabarmenagoa da Alde Zaharrean, "jenderik gehien mugitzen den tokian". Udaletik ere eurekin hartuemanetan jarri ziren "kezka" adierazteko, eta taberna-

rien elkartek kezka hori "bere" egin zuten, gogoratu du Eizmendik. Horregatik erabaki zuten joan zen asteko barikuan maskara jartzen ez zuenari ez zerbitzatzea. Neurri hori iragartzen zuten kartelak jarri zituzten tabernen atarian, baita arduraz jokatzeko eskatzen zuten beste batzuk ere. Erabaki "gogortxo" dela jabetzen ziren, baina hartu beharrekoa zela uste zuten, Eizmendiren esanetan. Sei egun eman zituzten horrela lanean, harik eta atzo Osasun Sailak maskaren derrigortasuna ezarri zuen arte.



AMAGOA MARTINEZ GANDARIAS

Anboto jatetxea

"Bezeroen artean, adinekoei kostatu zitzaaien gehien erabakia ulertzea"

DURANGO • J.D.

Derrigortasunik ez zegoen egunetan, konplikakua izan zen hartutako erabakia hartzea? Ulertu behar dugu osasun barik ez dagoela lan egiterik. Lehenengo beharrezkoa da

bigarrenerako. Guk jende dezente daukagu hemen lanean. Bat gaixotzen bada, zarratu egin beharko genuke. Eta, etxe-koak ere hor daude: umeak, bikotekidea, aita-amak, aitita-amamak... Esango nuke, denbora pasa den heinean, denok apur bat erlaxatzen joan garela. Baina, gero, jende aglomerazioak ikusten dituzu, arduratu egiten zara. 'Berrito atzerantz joan behar dugu, ala?' galdetzen diozu zeure buruari. **Lehenengo egun haietan herritarrek ondo hartu zuten neurria?**

Denetarik egon zen. Batzuk ondo hartu zuten, baina egon zen buelta erdi eman eta joatea erabaki zuenik ere. Bezeroen artean, adinekoei kostatu zitzaaien gehien hartutako erabakia ulertzea. Gazteei baino gehiago. Nahiz eta gehienek poltsikoan eramaten duten maskara. "Baina zertarako?", galdetzen zuten. Orduan, azaldu behar genien, edozein dendatan sartzeko maskara ipintzen den moduan, tabernetan ere ipintzea komeni zela.



JUAN MANUEL IRIONDO 'Txapo'

Rugby Taberna

"Denda batera sartzeko maskara ipintzen badugu, tabernara sartzeko, zergatik ez?"

DURANGO • J.D.

Arduraturata zaudete?

Joan zen egunean, selektibitatea amaituta, gazteek kalera irten zuten. Tabernetan ondo, baina kanpoan, asko mas-

kara barik egon ziren. Kezka sortu zen, eta barikuan udaletik kartel bat heldu zitzaigun, babes neurriak zabaltzeko. Denda batera sartzeko maskara ipintzen badugu, tabernara sartzeko, zergatik ez? Horregatik hartu genuen erabakia.

Orain maskarak jartzea derrigorra da, baina hasierako egun haietan berezoket ulertu zuten zuek hartutako neurria?

Osasuna da garrantzitsua. Bezero batzuekin tira-birak sortu dira, eta sentitzen dugu, baina neurriak hartu behar ziren. Dena dela, gehienek maskara poltsikoan zuten, eta jartzeko eskatuz gero, ipintzen zuten.

Erlaxazioa egon da?

Ia hiru hilabete etxean sartuta egon gara, eta kalera irten gura izatea normala da. Baina, maskaragaz. Tabernariok egun osoan maskaragaz lan egitea ere ez da eroso, baina beharrezkoa da. Ez genuen Ordizian eta Lleidan gertatu dena hemen gertatzerik nahi.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko uztailaren 17a
18. urtea - 816. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Eraso sexisten aurkako protokoloaren lan-bilera egin dute hainbat alkatek

Lan-bileran Durangaldeko hainbat herritako alkateek parte hartu dute, erakundeen erantzuna hobetzeko

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO
Indarkeria matxistaren aurrean erakundeen erantzuna eta koordinazioa hobetzeko, lan-bilera egin dute aste honetan Abadiño, Berrioko, Durangoko eta Elorrioko udalek Ertzaintzaren, Osakidetza-aren eta Amankomunazgoaren ordezkariekin. Lehenengo protoko-

loa 2011n onartu zen, eta 2017an II. protokoloa sinatu zen. Bigarren hitzarmen honetan, protokoloa emakumeen aurkako indarkeria gauzatzen den bestelako erremue-tara zabaltzea zen erronka; esate baterako, alderdi sozioekonomi-kora edota pertsonalera, besteak beste.



Alkateak lan-bileran.

Ibarretxe Kultur Etxetik eskola eremuraino sigi-sagan joango den oinezkoentzako bidea egokituko dute

Proiektua martxoan onartu arren, koronabirusaren eraginez atzeratu egin da prozesua

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ibarretxe kultur etxetik eskola eremura iristeko dauden eskaile-
ren paretik abiatuko da 133 metro inguruko arrapala berria, eta sigi-sagan joango da Haurreskolaraino. Irisgarritasuna bermatzeko, ibilbi-de horrek %6-ko malda izango du. Iurretako Udalak 160.000 euroko inbertsioa egingo du lanok gau-zatzeko, eta obrak urrian hasia aurreikusi du Iñaki Totorikaguena alkateak.

Oinezkoentzako bide berria hormigoi inprimatuzkoa izango da, eta dagokion argiteria eduki-ko du, alkateak azaldutakoaren arabera. Zuhaitziak eta jarlekuak ipiniko dituzte ibilbidean zehar, eta arrapalen artean legarrez es-talitako ibilbideak ere egokituko dituzte.

"Irisgarritasuna hobetzeko"

Proiektua martxoan onartu zuen Iurretako Udalak. Hala ere, koro-nabirusaren eraginez atzeratu egin dira lanak. "Irisgarritasuna hobe-



Iñaki Totorikaguena alkatea proiektuaren aurkezpenean.

**Iurretako Udalak
160.000 euroko
inbertsioa egingo du
lanok gauzatzeko**

tzeagaz batera, inguruan paisaia efektu positiboa lortzea" du helbu-ru. Udalak hiru hilabeteko epea du lanen ardura hartuko duen en-presa aukeratzeko. Proiektu guztia garatzeko, 2.500 metro koadroko lurzorua bereganatu du udalak, desjabetzaren bidetik.

Martxan jarri euro-eko lehenengo 3 kuotekin.

Mercedes-Benz-en berriz gozatzen lagundu nahi dizugu, plan baten bidez.

- Euro 1-eko lehenengo 3 kuota¹.
- 3 urteko bermea eta mantentze-lana barne².
- Arrisku orotarako aseguruia 199€-ren truke lehenengo urtean³.

Mercedes-Benz



¹Finantzaketa-adibidea: Clase A 180 d zuria, 7G-DCT aldaketa automatikoa, AMG Line, Premium paketea eta aluminio argiko apaingarriak dituen. J.P. 35.750,30€ (zergak eta garraioa barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España E.F.C., S.A. Bruselas etorbidea, 30-28108 Madrid programari esker. Baliozkoak: 2020/07/31ra arte egindako eskaintzak, 2020/08/15era arte onartutakoak, aktibatutako kontratuak eta 2020/08/31ra arte matrikulatutako ibilgailuak, bezeroak otzera egiteko 14 laneguneko epea daukela kontuan hartuta. Gutxienez 24 hileko finantzaketa derrigorrezkoa da. Finantza beharrezko zenbatekoa 24.997,23€. Hilean euro 1, 3 hilabetetan zehar eta hilean 260€ 45 kuotatan eta azken kuota 19.812,83€, sarrera 10.753,07€, ITN %6,99, irekitze-komisioa 747,42€ (%2,99), UTB %8,22. Guztira ordaindu beharrezko zenbatekoa 32.263,25€. Guztira epeko zenbatekoa 43.016,32€. Kalkulatutako adibidea 20.000km/urtean. Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratua baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. ²CompleteCare akordioa: 3 urteko bermea eta mantentze-lanak, 60.000Km bete arte. Higadura-piezak barne, pnumatikoak izan ezik. ³Mutua Madrileña-ren arrisku orotarako aseguruia 199€-ren truke lehenengo urtean, 300€-ko frankizia duena. Aseguru-polizaren baldintzei lotutako estaldurak. Eskaintza finantzaketari lotuta dago. Mercedes-Benz Services, aseguru-artekaritza S.A.U.-k, Bruselas etorbidea, 30, 28108 Alcobendas (Madrid), helbidea duenak eta IFK: A47091194 duenak, Espainian aseguru-bitartekari gisa jarduteko baimena du. J-10 14 klasea du eta Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru-banatzaleen eta berraseguru administrazio-erregistroan inskribatuta dago. Honek Mutua Madrileña Automovilística Sociedad de Seguros a Prima Fija izeneko elkartearen bitartekari gisa jarduten du. Aipatutako elkarrekin Castellana pasealekuan, 33, 28046 Madril dauka helbidea eta IFK: V28027118 du. Hau ere Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiko Aseguru eta Berraseguru Erakundearen administrazio-erregistroan inskribatuta dago, M-0083 klasea duena. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en.

Aguinaga

Mercedes-Benz zontesionario ofiziala
Retuerto kalea, 38.
48903 BARAKALDO.
Tel.: 94 497 00 74.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Borua enpresa-parkea, 2A-3 partz.
48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 630 17 47.

Botica Vieja kalea, z.g.
48014 BILBAO (DEUSTU).
Tel.: 94 447 08 40.

Iparraguirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.

2021ean Atxondoko Udalak biribilgunea egitea gura du N-634 errepidean, Irubideko bidegurutzean

Errepideko lanek 800.000 euroko aurrekontua izango dutela eta inbertsioa Foru Aldundiak egingo duela esan dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño-Elorrio tartean, BI-632 errepidean, biribilgunea bat eraikitzeke lehenengo pausoa emango du Atxondoko Udalak. Irailean emango dute pauso hori, eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz akordioa sinatuko dute. Behin hori sinatuta, 2021ean lanekin hasia gura dutela azaldu dute.

"Hainbat hamarkadatan, Irubide izeneko puntu hori arriskutsua

ko", esan dute prentsa ohar bidez Atxondoko Udaleko kideek.

Biribilgunea egiteaz gain, Cemosan enpresatik Santa Katalina zubira arteko errepidea zeharbide bihurtuko dutela esan dute. Horre-

gaz, errepide hori atxondarrentzat "leku atsegina eta seguruagoa" izango dela diote udaletik.

Lanek 800.000 euroko aurrekontua izango dute, eta Foru Aldundiak egingo du inbertsioa. "Oso

albiste positiboa da, horrenbeste urtez eskatutako biribilgunea hila-bete batzuk barru eraikiko da, eta horrekin udalerriri sarbide seguruagoak emango zaizkio", bukatu du alkateak.



Irubideko bidegurutzean biribilgunea egingo dute (infografía).

Cemosa enpresatik Santa Katalinako zubira arteko errepidea zeharbide bihurtuko dute

izan da herriko hirigunetik irten eta Abadiño eta Elorrio lotzen dituen bidean sartzeko. Gobernu-taldera iritsi zenetik, Xabier Azkarate alkateak elkarrizketak izan ditu foru-erakundearekin, lan horiek ahalik eta arinen egin ahal izate-

Uraren eta erroten garrantzia ezagutzeko ibilbidea egingo dute Arrierrekatik

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Historian zehar urak eta erroten izan duten garrantzia ezagutu asmoz, Berrizko Arrierreka errekatik bi orduko ibilbidea egingo dute asteburuan. Jon Ander Ramosek gidatuko dituen bisitak San Pedro txiki ermitan hasiko dira, 10:00etan. Bi orduko iraupena izango dute eta Sarrian amaituko dira.

Bisita bi egongo dira: bata euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz. Euskarazko bisita gidatua

Jon Ander Ramosek gidatuko dituen bisitak San Pedro txiki ermitan hasiko dira

uztailaren 18an izango da, eta gaztelaniazkoa uztailaren 19an. Udaletik esan dutenez, bisitan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute 94 622 53 69 telefonora deituta edo euskara@berriz.eus helbidera idatzita.

Elorrioko airearen kalitatea hoberrantz doala jakitera eman du udalak

Neurketak herriko puntu bitan egin dituzte; Txanberi eta Goieta kaleetan, zehazki



Jaurilaritzak kaleratu berri du Elorrioko airearen kalitatearen txostena.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udalerriko airearen kalitateagaz "arduratuta" eta fundizio-enpresatik hurbil bizi ziren herritarren eskaerei erantzunez, 2017an airearen kalitatea neurtzeko gailuak jartzeko eskatu zion Elorrioko Udalak Eusko Jaurlaritzari. Aldi berean, udaleko ingurumen teknikariak eta gobernu taldeak hainbat batzar egin zituzten enpresetako arduradunekin, akatsak zuzendu eta elkarbizitza hobetzeko. Batzar horren ostean, enpresek hainbat neurri zuzentzaile hartu zituzten, eta udalak jakinarazi duenez, neurri horiek eman dituzte euren emaitzak. "Jaurlaritzak azken txostenaren emaitza eman berri du, eta Elorrioko airearen kalitateak hobera egiten jarraitzen du", esan dute udaletik.

Neurketak herriko puntu bitan egin dituzte: Txanberi eta Goieta kaleetan. Hainbat partikula izan ziren neurtutakoak: PM 10 izenekoak, PST partikulak eta PM2,5 partikulak, besteak beste.

Bestalde, udalak jakinarazi du Goietan baimenduriko neurriak gaitzitu egin zirela. Baina, Eusko Jaurlaritzako txostenaren arabera, EAEn egindako gainerako neurketekin bat dator. Beraz, Goietako datuak "ezin zaizkiola industriari egotzi" azaldu dute Elorrioko Udaleko kideek.



Udalaren baimenagaz Elorrixoko katuak elkarrekin kudeatuko dituzte koloniak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herrian dauden katuen koloniak kontrolatu, elkarbizitza ahalbidetu eta gai hau "arduraz kudeatzeko", Elorrioko Udalak martxan ipini du katuak harrapatu, antzutu eta askatzeko kanpaina, Elorrixoko Katuak elkarrekin batera. Udaletik jakinarazi dutenez, katuen koloniak kontrol barik hazten joan diren heinean, elkarbizitza arazoak sortu dira, eta asmoa arazo horiek konpontzea da.

Horrez gain, katuei jaten emateko lau puntu egokitu ditu udalak. Puntu horietan jarri dituzten txaboletan jaten emango zaie, eta katuak bertan daudela baliatuz, harrapatu eta albaitariarengana eramango dituzte.



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



Izurtzako parkeak eta presa ingurua garbi mantentzeko deia udaletik

Normaltasun berrian areagotu egin da Izurtzako Santo Tomas parkera eta Uresandi presara joaten diren bisitarien kopurua, baita lurrean uzten den zikinkeria kopurua ere

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Inguruko herrietako bisitarien egunpasarako jomuga izaten dira sarritan Santo Tomas parkea eta haren ondoko Uresandi presa. Ez da kontu berria. Baina, konfinamenduaren ostean, areagotu egin da jende emaria, baita han uzten den zikinkeria kopurua ere; batez

ere, asteburuetan. Ildo horretatik, udalaren eskariz, Amankomunazgoak kontenedore berde bi gehiago jarri ditu uda sasoirako. Parkea garbi mantetzeko eskatzen duten oharrak ere jarri ditu udalak hainbat puntutan. Hala ere, oraindik badago eskari horiei kasurik egiten ez dienik, udal arduradunen esane-

tan. Lorea Muñoz alkateak azaldu du, Izurtzan ez ezik, inguruko beste herri batzuetako parkeetan ere arazo berbera dutela, eta parkeak garbi mantetzeko eskatu die bisitariari. "Utzi ditzagun parkeak norbera parkera joaten denean aurkitu gura izaten duen moduan", azaldu du.



Parkea garbi mantetzea eskatzen duten kartelak daude parkeko hainbat puntutan.



Jende pilaketak ekiditeko ohiko ekimen batzuk bertan behera utzi edo moldatu egin dituzte.

Paella txapelketarik ez, aurtengo Mallabiko jaietan

Andra Mari jaiak ospatzeko egitaraua normalean baino zurrunagoa izango da, segurtasun neurriek eraginda

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Andra Mari jaietako egitaraua osatzen ari dira egunotan udalean. Ohiko ekimen batzuk mantendu eta beste batzuk bertan behera utziko dituzte segurtasun kontuengatik. Esaterako, aurtan ez da Andra Mari eguneko paella txapelketarik egingo. Gainera, San Roke egunean ez da jubila-

tuentzako bazkaririk egongo Kontzejuzarrean; horren partez, plazan ikuskizun bat antolatuko dute jubilatuentzat, pintxo batzuek lagunduta. Ildo horretatik, jaietako amaiera eman ohi dien txarri janik ere ez da egingo. Horren orde, escape room jokoa antolatuko dute: gaiak Mallabiko historia eta berdintasuna izango dira.

Elurtegia eta inguruak ezagutzeko bisita gidatua egingo dute Otxandion, zapatuan

OTXANDIO • J.D.

Gorbeialde elkarteak Otxandio eta inguruak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu datozen hilabeteetarako: uztailaren 18an, abuztuaren 15ean, irailaren 19an eta urriaren 18an izango dira. Zapatu honetako 10:30ean hasiko da udaletxeko plazatik. 3 euro da 12 urtetik gorakoentzat eta 1,5 euro adin horretatik beherakoentzat.

Presazelaiko pagadia eta Astikurutzeko elurtegia bisitatuko dituzte, besteak beste, gidari bategaz. Izen-ematea www.gorbeiaeuska-di.com gunean egin daiteke.



Astikurutzeko elurtegia bisitatuko dute, besteak beste.

Gaur Gazte Eguna ospatuko dute Otxandioko gaztetxean

Dumb Boys eta Zarata Selektion-ek 'jam session' bana eskainiko dute; ostean zuzeneko kontzertuak egingo dira

OTXANDIO • J.D.

Segurtasun neurriak bermatuta, Gazte Eguna ospatuko dute gaur Otxandioko gaztetxean. Eguerdian txupinazoa bota eta pregoia irakurriko dute, eta kalejiran irtingo dira. 15:00etan bazkaritara batuko dira. Arratsaldean musika izango da nagusi: 19:00etan, Dumb Boys eta Zarata Selektion-ek jam session bana eskainiko dute. Ondoren, 21:00etan, zuzenekoak eskainiko dituzte Ziakhus eta Durum Solo Karne taldeek.



Kontzertuak gaztetxean izango dira.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



ILE-APAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Uztailaren 16tik 22ra

Aurreztu

%10



Zure erosketetan* egunero.

* 50€-tik gorako erosketengatik Amorebieta, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Markinako EROSKI Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoengatik EROSKI Abadiño Hipermerkatuan.

Kutxatik igarotzean zure EROSKI club txartela pasatzen baduzu, egindako erosketaren %10ari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Erosketa bakoitzean gehienez sartu daitekeen zenbatekoa: 250€. Kotsulta itzazu gainerako baldintzak zure ohiko EROSKI dendan.

Baita supermercado.eroski.es-en ere.



Gestamp enpresako beharginei egindako koronabirusaren test azkarrek zalaparta mediatikoa sortu dute Durangaldean

Langile denei testak egiten dabiltza; astelehenean egindako 100 test azkarretan 8 positibo egon ziren



Gestamp enpresako argazkia

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Abadiñoko Gestamp enpresan koronabirusaren inguruko testak egiten ari dira egunotan. Enpresak azaldu du neurri hau bere lantoki guztietan martxan ipini duela, "prebentzio neurri moduan". Astelehe-

Test azkarretan positibo emandako zortzi langile horietatik lauk negatibo eman dute PCR proban

nean egindako 100 test azkarretan 8 pertsonen positibo eman zuten. Albisteak zalaparta mediatiko handia eragin zuen. Positibo emandako langile horiei etxean gelditzeko eskatu zieten, eta PCR proba egin zieten. ANBOTOK edizioa interako jakin ahal izan duenez, zortzi langile horietatik lauk negatibo eman dute PCR proban. Beste lau langileen PCR proben emaitzen zain daude. Hurrengo egunetan ere gainontzeko langileei test azkarrek egingo dizkietela baieztatu du enpresak. Gestampen 700 langile inguruk dihardute.

Abadiñoko Udalak 100.000 euro bideratuko ditu haur parkeak berritzeko

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko bost haur parkeren zoladura berritzeko, 100.000 euro bideratuko ditu udalak. Muntzaratz eta Zelaieta auzoetako bina parke konponduko dituzte, eta Matienako beste haur parke baten zoladura ere bai. Udalaren arabera, bost jolasgune horietako zoladura hondatuta dago, "erabiliaren erabiliz". Lanak udazkenean hasiko direlakoan dago Abadiñoko Udalak. Une honetan, Muntzaratzeko haur parkeetako bat estaltzeko lanak ere martxan daude.



Gaztañodiko haur parkea.

Zaldibarko hondakindegia buruzko liburua aurkeztu dute

Ahoztar Zelaieta kazetariak idatzi du 'Zaldibar. Zona cero' liburua; Txalapartak argitaratu du, gaztelaniaz

ZALDIBAR • A.M.

Ahoztar Zelaieta kazetariaren Zaldibar. Zona Cero liburua kaleratu du Txalaparta argitaletxe nafarrak oraintsu. Ikerketa lana da Zelaia-tarena, eta liburuaren hitzaurrea Gaizka Zabarte zaldibartarrak idatzi du.

Bost hilabete baino gehiago igaro dira Zaldibarko hondakindegiko lur-jausia gertatu zenetik. Joaquín Beltran eta Alberto

Gaizka Zabarte zaldibartarrak idatzi du ikerketa liburuaren hitzaurrea

Soraluce langileek desagerturik jarraitzen dute otsailaren 6tik, eta "horrek bultzatuta" egin du ikerketa Zelaiaetak.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o MIÑAN Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)	2^o AITAREN ETXEA Karmele Jaio (Elkar)	3^o IBAERTZEKO IPUINA Oihane Amantegi (Elkar)	4^o ENE BAITAN BIZI DA Maddi Ane Txoperena (Elkar)	5^o ZENDABALITZ Erika Elizari (Elkar)
--	--	---	--	---

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

CERAMICAS MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA DEKORAZIOA ETA APAINKETA ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Ezforri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Durangaldean EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eta EH Bildu, ostera, indartu egin da

Eskualdean Podemos-Ahal Dugu hirugarren indarra izatetik laugarren tokira pasa da, PSE-EEren mesedetan

DURANGALDEA • E.H./M.Z.

Domekako hauteskundeetan, EAJk 2.010 botoko alde atera zion EH Bilduri Durangaldean. Hauteskundeak jeltzaleek irabazi dituzte, baina harekiko alde txikitu du EH Bilduk, boto portzentajea handituta. Elkarrekin Podemos-Ahal Dugu taldea hirugarren indar politikoa izatetik laugarren tokira pasa da, PSE-EEren mesedetan.

EAJk garaipena lortu du Durangon, Zornotzan, Mañarian, Berrizen, Garain eta Iurretan. EH Bildu, ostera, zerrenda bozkatue-na izan da Abadiñon, Elorrion, Atxondon, Mallabian, Otxandion, Izurtzan eta Zaldibarren. Orain dela lau urteko datuekin alderatuta, koalizio subiranistak lau herri gehiagotan lortu du garaipena (2016an Otxandion, Elorrion eta Mallabian lortu zuen).

PSE-EEK orain dela lau urteko emaitza berdintsuei eutsi die, baina hirugarren alderdirik boz-

katuena izan da, Elkarrekin Podemosek izan duen higaduraren ondorioz. Talde moreak 2016an baino bi mila boto inguru gu-


Duela lau urteko datuekin alderatuta, EH Bilduk lau herri gehiagotan lortu du garaipena

txiago jaso ditu. Laugarren indar politikorik bozkatuena izan da.

Equo Berdeak talde ekologistak 299 boto lortu ditu, eta Vox alderdi ultraeskuindarrak 332.

EAJ garaile hiru lurraldeetan

Jeltzaleak garaile izan dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Hiru eserleku gehiago izango dituzte aurrerantzean Eusko Legebiltzarrean; 31 guztira. EH Bilduk indarra hartu du Autonomia Erkidegoan. Lau eserleku gehiago izango dituzte. Elkarre-



2020ko eta 2016ko datuen alderaketa.

Jeltzaleak garaile izan dira hiru lurraldeetan: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

kin Podemosek beherakada izan du bost eserleku galduta, eta bere posizioa hobetu du PSE-EEK, bat gehiago gehituta. PPK beherako joerarekin jarraitzen du. Ciudadanos alderdiagaz koalizioa

osatu arren, aukera horrek huts egin dio. Indarra galdu du, lau eserleku galduta, eta 5 izango ditu aurrerantzean. Ultraeskuinak eserleku bat izango du, lehenengoz, Eusko Legebiltzarrean.



lea artibai
ikastetxea

guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

Markina-Xemein (Bizkaia) - 94 616 90 02
info@leartik.eus - www.leartik.eus



BIOLAN



ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

lanbide-irteera asko dituen goi mailako Lanbide Heziketako ziklo bat.

BIOLAN nekazaritzako elikagaien sektoreari aplikatutako teknologian erreferentziatzeko enpresa bat da, bioteknologikoa oinarria duena. Zamudioko Parke Teknologikoko instalazioetan, elikagaien kalitatea eta segurtasuna kontrolatzeko Biosentsoreak garatzen dituzte.

Bertan lan egiten dute Lea Artibai Ikastetxeko 4 ikasle ohik, 'Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea' goi-mailako Lanbide Heziketako zikloa ikasi dutenak. Eider Ormaetxebarriak eta Pello Del Hoyok 2018-2019 ikasturtean prestakuntza duala egin zuten, eta Kelly Da Cruz Aldeias eta Jon Bedialauneta laster hasiko dira bertan lanean kontratu batekin, prestakuntza amaitu ondoren.

Asier Albizu Biolaneko kudeatzailearekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta Lea Artibai Ikastetxearekin lankidetzan izandako esperientziak galdetu diogu:

Nola egokitu dira gazteak taldera?

Egokitzapena oso erraza izan da, taldea gaztea delako eta lan-giroa oso atsegina delako. Ikasteko eta laguntzeko gogoz zetozen, eta, egia esan, oso ondo moldatu dira, eta horregatik sartu dira plantillan.

Egokitzat jotzen duzu Lanbide Heziketan ematen den prestakuntza-maila?

Eskuratutako prestakuntza teknikoak garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa pertsonen lanaren aurrean duten jarrera eta ikasteko gogoak; izan ere, Biolanen dituzten zereginak oso espezifikoak dira, eta Lea Artibai Ikastetxeak eskaintzen dizkien aukerak aprobetxatzea prestakuntza-oinarri honen ezaugarri bat da.

Zer onura dakartzio sistema dualak enpresari?

Pertsonak behar beste denboraz ebaluatzeke aukera ematen digu, eta ikasleei ere aukera hori benetan aukera bat den baloratzeke abagunea ere ematen die.

Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio elikadura osasungarriari eta elikagaien kalitateari. Hori kontuan hartuta, uste duzu etorkizun hurbilean arlo horietan langile kualifikatuen beharra egon daitekeela sektorean?

Elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloan langile kualifikatuen beharrak gora egiten jarraitzen du, izan ere, munduan gure jarduera erritmo onean hazten ari da, agintariak betearazten dituzten ziurtagiriak eta kontrolak oso zorrotzak direlako eta kontsumitzaileek ere gero eta gehiago eskatzen dutelako.



34 boluntariok josi dituzte maskarak.

Boluntarioek jositako 3.800 maskara banatuko dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretarrantzat berriro erabiltzeko 3.800 maskara higieniko josi dituzte borondatez 34 lagunek, eta "egindako ahalegin solidario eta desinteresatuagatik" bere esker ona agertu die udalak. Egindako maskarak datozen egunotan ha-

siko dira banatzen bai auzoetan, baita herrigunean ere. Maskaragaz batera, erabilerari eta garbitasunari buruzko informazioa banatuko da. Horrez gain, udalak herritarrei eskatu die, COVID-19 berragertzea saihesteko, bitarteko eraginkor gisa erabiltzeko.

Plan Estrategiko berria izango du Durangaldeko Amankomunazgoak

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Herritarren partaidetza, elkartasuna, ekitatea eta "guztien ongizatea" sustatuko ditu Plan Estrategiko berriak, "herritarren eta gizarte zein eragile ekonomikoen arteko hartuemana oinarri hartuta", Amankomunazgoko ardu-

radunen berbetan. Besteak beste, Berdintasun Zerbitzua martxan jartzeko bideragarritasuna aztertuko du Durangaldeko Amankomunazgoak Plan Estrategiko berriaren barruan, eta, hala badagokio, zerbitzu horren diseinua lantzea proposatuko du.



Abadiñoako herrigunea zeharkatzen du BI336 errepideak

Kamioi astunei BI-336 errepidetik pasatzea eragozteko kontrolak

Kontrolak Abadiñoako udaltzaingoak egingo ditu

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak jakinarazi duenez, kamioi astunek, zortzi tona baino gehiagokoek, debekatuta dute BI-336 errepidetik pasatzea. Beraz, Abadiñoako udaltzaingoak

hori saihesteko kontrolak egingo dituela jakitera eman dute.

Udaletik gogorarazi dute inguruko enpresaren batera doazen kamioiak bakarrik pasa daitezkeela errepide horretatik.

Irailaren 14an zabalduko ditu ateak Zornotzako Zubiaur Musika Eskolak

1.010 metro koadro ditu eraikin berriak, eta Zornotzako Zelaieta parkean dago. Irailean irekitzea aurreikusten dute Zubiaur Musika Eskola, hogeii hilabeteko lanen ostean



Zelaieta parkean dago Zubiaur Musika Eskola.

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Irailean ikasturte berriarekin ateak irekiko dituen musika eskola berriaren eraikina bisitatzeko aukera eduki du ANBOTOk. 500 ikasle inguru hartzea aurreikusten dute, eta koronabirusaren agerpenaren eragina nabaritutako den arren, eraikin berria moldatzeko gai izango direla adierazi du Ruper

"Ordutegiak berrantolatu beharko ditugu, baina ez dugu arazorik edukiko espazioari dagokionez"

Lekue musika eskolako zuzendariak. "Espazio desberdinak eta ordutegiak berrantolatu beharko ditugu, baina ez dugu arazorik edukiko espazioari dagokionez".

Hamalau urtez egon da Zubiaur Musika Eskola aurreko eraikinean. Hamalau gela edukiko ditu eraikin berriak, eta energia geotermikoa erabiliko du, Zornotzako beste hainbat udal eraikinek bezala. Eraikinak hiru solairu ditu, eta Zelaieta Zentroa amaitutzat emango da berrikuntza honekin.

Garaiko tabernetan baliatu ahal izateko deskontu-bonuak agortu dira jada

Udalak, aurrerantzean, landetxean gastatzeko bonuak hauspotu gura ditu



Garaiko landetxeko egongelaren txoko bat.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Herriko ostalaritzari bultzada emateko, deskontu-bonuak kaleratu zituen udalak orain dela egun guxti, eta eguen goizerako agortuta zeuden denak. Herritarrek ederto erantzun diote egitasmoari. 25

euroko txartela erosita, Garaiko tabernetan 45 euroko kontsumoa egin ahalko dute. Udalaren arabera, 6.750 euro mobilizatu dira dagoeneko eta gehiago mobilizatu dira aurrerantzean. Izan ere, orain, Garaiko landetxea bultza-

tzeko deskontu-bonuetan ipiniko du arreta. 35 euro ordainduta, 65 euroko kontsumoa egin ahalko da. Udalak hartu dituen beste neurri batzuk ostalaritza tasak arintzea eta ostalariei 500 euroko zuzeneko laguntza bideratzea izan dira.



Topatu itzazu beheko
irudien arteko 10 diferentziak.

DIFERENTZIAK



TXIKITIK HANDIRA

Ipini arrainak ordenan, txikitik handira.



LABIRINTOA



Jarraitu zentzu handiena duen sekuentzia. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.




PRESTATU MALETA

Mendira zoaz asteburu pasa eta maleta prestatu behar duzu.
Beharrezkoak al dira behean dauden gauza guztiak?










LABIRINTOA



DOMINOA

Marraztu itzazu falta diren
irudiak lauki zurietan.



TOPATU ITZAZU












Topatu itzazu honako objektu hauek beheko irudian.





ORIGAMI

Jarraitu pauso hauei paperezko itsasontzi bat egiteko.



Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 14ra arte

UDA KO 6. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldetik kanpoko 2019ko
argazki **IRABAZLEA**

Durangaldeko 2019ko
argazki **IRABAZLEA**



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

Musikaire

KONTZERTUAK **Elorrio :: Uztaileak 18**

Gari eta Maldanbera

Gari musikariak eta musika-gintzan ibilbidea luzea duen Maldanbera taldeak orain dela bost urte abiatu zuten bidea elkarrekin. *Estutu* izeneko lana argitaratu zuten 2016an, eta iaz kaleratu zuten bigarrena,

Beste denbora batean izenekoak. Disko horren aurkezpen berezia egin zuten Bilboko Arriaga antzokian Josu Zabalgaz batera, Hertzainaken abestiekin uztartuta. Kontzertu gogoangarria izan zen, eszenatoki borobil eta guzti. Oraingo honetan, Gari eta Maldanbera taldeak Elorrioko Musikaire bisitatuko du, zapatuan. San Roken izango da kontzertua, 22:30ean.



UZTAILEKO KULTUR PROGRAMAZIOA

>> DURANGO KULTURAZ BLAI <<

17 barikua

> **Amer i Africa Circ Cía** (Envà) ANTZERKI ZIRKUA

20:00 Kurutziaga ikastola

> **Carlos Herrero** 'Transhumante' MUSIKA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

19 domeka

> **Abarkas, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus**

BERTSO SAIOA

13:00 Plateruena Kafe Antzokia

> **Durangoko Orfeoia** MUSIKA (Nagusientzat)

19:00 Landako eskola

24 barikua

> **Ana Galarraga** 'Bizitzaren laborategian' IPUIN KONTALARIA

11:00 - 17:00 - 18:00 Kurutzesantuko lorategia

> **Las XL** "Abandónate mucho" MUSIKA/ANTZERKIA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

25 zapatua

> **El Gran Dimitri** "The great circus show" ANTZERKIA

20:00 Landako eskola

> **Xampatito** "Só" ZIRKUA

20:00 Kurutziaga ikastola

30 eguena

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

31 barikua

> **Iparbeltzok** MUSIKA

21:00 Plateruena Kafe Antzokia

>> MUSIKAIRE ELORRIO <<

17 barikua

> **Iker Piris & His Dual Electras**

22:30 San Roke

18 zapatua

> **Gari & Maldanbera**

22:30 San Roke

19 domeka

> **Goitibera - 'Yijaaa!!!'**

19:30 San Roke

24 barikua

> **Topa-k**

22:30 San Roke

25 zapatua

> **Oreka Tx**

22:30 San Roke

26 domeka

> **Circo chosco - 'Indartsuak'**

19:30 San Roke

31 barikua

> **Elkano Browning Cream**

22:30 San Roke

>> BERRIZ <<

17 barikua

> **Cia Maintomano** 'Beldur barik'

18:00 Eskolako patioa

24 barikua

> **'Musika Kutxa' eta 'Indala'** DANTZA IKUSKIZUNAK

19:00 Eskolako patioa

Zugaza zinema

· ¡SCOOPY!

barikua 17: 19:30 / 22:00

zapatua 18: 17:00 / 18:15 / 20:30 / 22:30

domeka 19: 17:00 / 19:30

astelehena 20: 18:00 / 20:00

martitzena 21: 20:00

eguztena 22: 19:00

· SUPERAGENTE MAKEY

barikua 17: 19:30 / 22:00

zapatua 18: 19:30 / 22:30

domeka 19: 17:00 / 19:30

astelehena 20: 18:00 / 20:00

martitzena 21: 20:00

eguztena 22: 19:00

· LA FAMILIA QUE TU ELIGES

barikua 17: 19:30 / 22:00

zapatua 18: 19:30 / 22:00

domeka 19: 19:30

astelehena 20: 18:00 / 20:00

martitzena 21: 20:00

eguztena 22: 19:00

· JANA Y LA PIRULETA MÁGICA

zapatua 18: 17:00

domeka 19: 17:00

LA FAMILIA QUE TU ELIGES pelikulak aste honetan 2x1 promozioa izango du leihatilan erosiz gero.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

'Envá' zirku ikuskizun saritua ikusteko aukera egongo da asteburuan, Durangoko Uda Kulturaz Blai egitarauaren baitan

45 minutu inguruko zirku ikuskizunean orekarekin jolasten dute Africak eta Amerrek, publikoarekin ere harremanduz

DANTZA • A.M.

250 kilogramo lasto artean, *Envá* zirku ikuskizuna dakarte Amerrek eta Africak, giza harremanei buruz hausnartzea eragitea gura duen lana. *Envá* berba tabiketarik dator, hain zuzen ere, "gizakia preso bihurtzen duten buruko tabikeak" dira emanaldiaren funtsa. "Gizakiak berez duen ergelkeria sinbolizatzen du antzerkiak; ondokoarekin batzeko, egiteko kapaz garen alferrikako ekintza horiek" diote protagonistek. Mugimenduen bidez, oreka ariketak eta umorea tartekatzen ditu ikuskizunak.

Zirku emanaldi berezia Kurutziaga ikastolan izango da, 20:00etatik aurrera. Leioako Umore Azoka entzutetsuan, Ikuskizunik Onenaren saria irabazi zuen 2018an. "Erraztasunez eta humanitatez beteriko lengoia barneratu dute zirkuak. Ikusleekin modu naturalean sortzen duen hartuemana eta objektu eta espazio publikoaren erabilera" ere saritu gura izan

zuten. Amer eta Africak osatzen duten zirkuak bost urte daramatza lanean, eta *Envá* hau da beraien lehen lan luzea (45 minutu inguru).

Orfeoiaren emanaldia

Uda Kulturaz Blai egitarauaren baitan, asteburuan bestelako es-

Bertso saioa eta Durangoko Orfeoiaren kontzertua egongo dira Uda Kulturaz Blai-n

kaintza ere egongo da. Barikuan, Plateruenean, Carlos Herrero *Transhumante* ikuskizuna eskainiko du. Domekarako, ostera, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek, Maialen Lujanbiok eta Amets Arza-lusek bertso saioan abestuko dute; 13:00etan izango da saioa. Arratsaldean, Durangoko Orfeoiak kontzertua eskainiko du Landako Eskolako jolaslekuan.



Amerrek eta Africak interpretatzen dute 'Envá'.

Hirugarren Sormen Beka DA!-rako deialdia zabalik dago; irailaren 21era arte egongo da proposamenak aurkezteko epea

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO

Euskarazko sorkuntza sustatu eta sortzaile berriei bidea erraztea helburu duen Sormen Beka DA!-ren deialdi berria egin du Gerediaga elkarteak. Oraingo honetan, ikus-entzunezkoa

izango da lanaren oinarria. Durangoko Udalaren laguntza du beka. "Garai zailak dira kulturetzatzena ere, eta euskal sortzaileen ekosistema babestu egin behar dugu", azaldu du Ane Abanzabalegi zinegotziak.

55. Durangoko Azokan aurkeztuko du Iratxe Aguilera Kai Nakai lez eginiko proiektua

Lehenengo deialdia *Atopia* rol jokoak irabazi zuen. Iaz Iratxe Aguilera eskuratu zituen beka-ko 15.000 euroak. Aurtengo Azokan aurkeztuko du Kai Nakai lez kaleratuko duen diskoa.

Hirugarren edizioa

Argizaiola sarien oinordekoa da Sormen Beka. Gerediaga "pozik" dago ekimenak aurreko bi edizioetan izan duen harreragaz.

Ikus-entzunezkoa izango da sormen bekara aurkeztu beharreko lanaren oinarria



Julian Rios, Nerea Mujika eta Ane Abanzabalegi.

SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ
Gutxienez 15 lagunek taldeentzako

BIBLIOTEKAREN IREKIERA

Maiatzaren 25etik aurrera

1 ITZULKETAK BUZOIAN

2 BIBLIOTEKARA SARRERARIK EZ

Momentuz ez da sarrera librerik egongo. Maileguak aldeztu aurretik eskatu beharko dira eta kultur etxeko atean jasoko dira.

3 MAILEGUEN ESKAERA

Maileguak telefonoz, Whatsapp-ez, emailaz edota online katalogoa erabiliz eskatuko ahal izango dira

4 JASOTZEKO ORDUTEGIA

Goizez (Asteleheneetik ostiralerara)
10:00 - 13:00
Arratsaldean (Astelekoa eta osteguna)
17:00 - 19:00

5 SEGURTASUN NEURRIAK

Eskarretako materiala higiegi neurriak jarraituz entregatuko dugu

94 681 27 26 688 863 736 biblioteca@iurreta.eus

Iurreta
Eletzaiteko Udala

“Bertan egon arren, ezagutzen ez ditugun txokoak erakutsi gura ditut”

Elorriagak naturari buruz duen ikuskera propioa erakutsi gura izan du Zarautzen jarri duen argazki erakusketaren bidez

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO

Lehior Elorriaga zaldibartarraren argazkiak ikusgai daude Zarauzko (Gipuzkoa) Arkami Arkitektoak estudioaren galerian. Uda osoan zehar egongo da ikusgai Elorriagaren lehenengo erakusketa izango dena.

Zer ikusiko du erakusketara joaten denak?

Normalean pertsonekin egiten dut lan, familiekin edota ezkontzetan, baina niretzat argazkilaritza natura, lurra, bizitza da, eta argi nuen erakusketarako nire hori erakutsi gura nuela. Erakutsi izan ditut sare sozialetan natura ildoko argazkiak, mendia, itsasoa edota kanpo espazioak erakusten dituztenak. Eduki izan ditut erakusketak egiteko proposamenak, baina ez dira gauzatu. Oraingoan, egitea erabaki dut.

Euskal Herriko irudiak dira denak, konfinamendu aurretik zein ostean ateratako argazkiak. Gertu izan arren, ezagutzen ez ditugun txokoak erakutsi gura izan ditut; askotan ez dakigu zer dugun etxe

alboan. Horregatik agertzen dira Euskal Herriko mendiak edota itsasoak. Animaliak ere ageri dira, nire ikuskeratik. Pertsonak ere bai; nahiko txiki ageri dira argazkietan, eta hori helburu batez egin dut: naturak duen handitasunean txiki erakustea gizakia. Naturak duen handitasunean, beste modu batera kokatu beharko ginateke, pentsatzen duguna baino gutxiago gara eta.

Nola eragin dizu koronabirusaren agerpenak?

Autonomo profesional moduan, galera handiak izan ditut; baina, sortzaile gisa, hazteko balio izan dit. Editatu barik nituen hainbat argazkirekin lan egiteko aukera edukitu dut; orain arte bigarren planoan

“**Konfinamendu aurretik eta ostean ateratako argazkiak dira gehienak, Euskal Herriko irudiak**”



Lehior Elorriaga Azpitarte

Argazkilaria
Zaldibar | 1981

izan ditudan argazkiekin jolastu eta horiek publikatzeko tarte hartu dut. Etxean, nire gorputz biluziarekin esperimentatzeko aukera ere edukitu dut. Asko gustatzen zaizkit azalarekin eta argiekin lortzen diren kontrasteak. Beharbada, konplexuagatik ez dut horrelakorik egin orain arte.

“**Konfinamenduan zehar nire gorputz biluziarekin esperimentatzeko aukera edukitu dut**”

Aurrera begira, zer asmo?

Ezkontzak asko gutxitu dira; familiekin ere badituzte lan batzuk egiteko. Nire asmoa da mendira joan eta naturako argazkiak egiten jarraitzea. Aurtengo egoeran, furgoneta hartu eta Kantabriara, Asturiasera edo Pirinioetara joateko gogoia dut, beste leku batzuk ezagutzeko.

Gai librean

Hitzaren monopolioa

Batek hitz egiten duenean bestea isiltzen da. Jakin behar da hitza hartzen, isiltzen eta entzuten. Hori da elkarrizketaren oinarritzko baldintza: isiluneak eta hitza hartzeko uneak tartekatzea, isiltzen denak hitza hartu duenari entzutea; noizean behin hitza hartzea, noizean behin isiltzea. Elkarrizketan dauden guztiek tartekatu behar dituzte berba egitea eta entzutea, hartara, benetako elkarrizketa bat izango da, elkarren berri jakitea ahalbidetzen duena. Tartekatzea, baina, ez da askotan gertatzen, eta elkarrizketa behar zuena bakarriketa bihurtzen da. Ohikoa da hau lagun bi baino gehiago elkartzen direnean ere: kasu horietan, batzuk beti daude isilik eta besteak ez dira sekula isiltzen. Hitzaren monopolioa hartzen dutenek ez dute delegatzeko asmorik izaten, eta hitzik gabe geratu dire-



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Eta ez pentsa hitzik gabe geratu direnek isiluneraren bat aprobetxatu ahaliko dutenik ahotsa altxatzeko, ez gero!

Ez al dira ba behingoz konturatuko beraiek hitz egiten dutelako isiltzen direla beste batzuk?

nek belarriak gorritu arte entzun beharko dituzte besteen kontuak. Eta ez pentsa hitzik gabe geratu direnek isiluneraren bat aprobetxatu ahaliko dutenik beraien ahotsa altxatzeko, ez gero! Hitzaren monopolioa dutenek ez dute beraien boterea deskuidatzen, albokoak zaintzen ez dituzten moduan zaintzen dute beren

ahala, nagusitasuna. Gainera, taldean konplizeak daudenez, errazago eusten diote botereari, bata bestearen artean banatzen dituztelako berbak: “Divide et impera”, banatu eta garaitu. Garaipenaz gain, banaketa horrek beste abantaila bat du boteretsuarentzat, bakoitzak bere burua zuritzea ahalbidetzen duelako: “Besteak ere nik beste berba egin du eta”. Eta gainontzekoek zenbat isildu duten konturatu al zarete? Nola ba! Besteen isiltasuna lotsari, berezi samarrak izateari, ezjakintasunari... leporatuko diote. Ez al dira ba behingoz konturatuko beraiek hitz egiten dutelako isiltzen direla beste batzuk? Talde batean hitzaren monopolioa hartzen dutenek jakin behar dute inor ez dela isiltzen beraiek hitz egin dezaten, baizik eta beraiek hitz egiten dutelako daudela besteak isilik, beraien hitz jario gogaikarriak ez diola beste inori ahoa zabaltzen uzten.



Iker Unzueta —eskumako aldean— Amorebieta futbol klubeko kamisetari eusten, Asier Goiria kirol zuzendariagaz

"Bigarren B Maila profesionalen liga bat da, eta 21 urte gaz hor aritzea ametsa errealitate bihurtzea da"

Amorebieta futbol klubak Iker Unzueta fitxatu du Durangoko Kulturaletik. Erronka berriari aurre egiteko prest dagoela dio

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amorebieta futbol kluba datorren denboraldira begirako taldea egituratzen ari da apurka. Asteon iragarpen bi egin ditu ildo horretatik, eta biek eskualdeko jokalariekin dute zerikusia. Batetik, Ekaitz Molinak taldean jarraituko du eta bigarren denboraldia beteko du Amorebietan. Bestetik, Iker Unzueta aurrelariaren fitxaketaren berri eman dute. Biak abadiñarrak dira. Azken hori Durangoko Kulturaletik joan da eta Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailarako saltoa eman du.

Ezustean hartu zaitu Amorebietaren interesak ala aspalditik zenekien?

Nahiko ezustekoa izan da. Egia da ondo jokatzen ibili naizela eta oso gustura sentitu naizela zelaian, baina ez dut gol asko sartu. Uste nuen

nire zifrak ez zirela holako talde baten interesa erakartzeko modukoak. Beraz, Bigarren B Mailako talde batek nigan konfiantza hori jartzeak harritu egin nau. Oso pozik nago, eta dudan dena emango dut konfiantza hori itzultzeko.

Zer animorekin zaude erronka berriaren aurrean?

Itzelezko ilusioa egiten dit aurretik datorrenak. Azkenean, Bigarren B Maila futboleko profesionalen liga bat da, eta 21 urte gaz [22 beteko ditu abuztuaren] hor ibiltzea ametsa errealitate bihurtzea da.

Ez da erraza izango leku bat egitea.

Hori argi dago. Beharbada aurrealdeko jokalaririk denek ez dute jarraituko, baina etortzen ari diren berriak maila handikoak dira. Esaterako, joan zen astean iragarri zuten Koldo Obieta fitxatu zutela

Tudelano taldetik. Aurretik Amorebietan ibilia da. Oso jokalaririk onak da, eta esperientzia du hainbat taldetan ibili delako. Neure onena ematen saiatuko naiz, horien den artean nire tokitxo egiteko.

Aurretik Bigarren B Mailan arituta, zara Durangoko Kulturalarekin.

"Nahiko ezustekoa izan da fitxaketa; ondo jokatzen nengil, baina ez dut gol asko sartu"

"Ez da joko dotoreegia ikusten den liga bat, baina taldeek ondo dakite zelan jokatu"

Denboraldi haietako zer oroitzapen duzu?

Beste mundu bat da. Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara salto handia dago. Nik Kulturalarekin 17 bat partidu jokatu nituen maila horretan, eurretako bederatzi titular moduan. Beharbada, Bigarren B Mailan ez da joko dotoreegia ikusten, baina taldeek ondo dakite zelan jokatu eta zer egin une bakoitzean. Esaterako, gogoan dut Izarrak taldearen kontrako partidu bat. Partidu ona jokatu eta aukera asko izan genituen; eurak, oster, behin heldu eta gola sartu zuten.

Amorebieta taldean nor ezagutzen duzu?

Ekaitz Molina eta biok urte bian taldekideak izan ginen Durangoko Kulturalan. Gogoan dut orduan asko lagundu zidala taldera egiten,

eta holako norbait ezagutzea lagungarria da beti. Julen Azkue jokalaria nire bigarren lehengusua da. Joseba Orbegozo elorriarrarekin ere badut hartueman. Adin bertsukoak gara, eta aspalditik ezagutzen dut.

Futbolariok hilabete dezente darazue partidu ofizialik jokatu barik. Zelan eusten diozu sasoiari?

Nik baserrian eman dut konfinamendu osoa, eta han inguruan lekua izan dut korrika egiteko, besteak beste. Ariketa asko egiteko aukera izan dut. Badakit jende askok ez duela izan nik izan dudana zortea horrela entrenatzeko. Orain medikuntza eta kirol hobekuntzarako zentro batean ere banabil. Abuztuaren 20aren inguruan hasiko dugu aurrendenboraldia, eta uste dut sasoi onean helduko naizela.

Zer oroitzapen utzi dizu Kulturalan emandako denborak?

Oso esker oneko nago eman zidaten aukeratik. Hiru urte eman ditut han. Filialeko fitxagaz hasi nintzen, baina hasieratik lehen taldearekin entrenatzen nuen. Askok ikasi dut han emandako denboran, eta onena opa diet.



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheak - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13



saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailtanerezureondoan

Iker Salazar Zornotza saskibaloitza taldera itzuli da

Hiru urtez Azpeitiko Iraurgirekin Urrezko Ligan aritu ostean, Zornotzara itzuli da denboraldi berrirako

SASKIBALOA • J.D.
Zornotza Saskibaloitza Taldea bulegoko lanean murgilduta dabil. Arduradunek joan zen astean iragarri zuten Mikel Garitaonandia entrenatzaileak eta Joseba Estalayo kapitainak klubean jarraituko dutela. Asteon, ostera, Iker Salazar fitxatu dutela jakinarazi dute, besteak beste.
Salazar leioarrak badaki Zornotzan jokatzeko zer den. Bigarren etapa izango du oraingoa. Lehenengoan, Urrezko Ligarako igoera

faseko finala jokatu zuen Zornotzarekin, besteak beste. Taldeko kapitaina izan zen klubaren historiako lorpenik garrantzitsuenetakoa. 2017tik hona, Azpeitiko Iraurgin aritu da, Urrezko Ligan.
Mendiak jarraitu egingo du
Borja Mendia hegaleko pibotak, berriz, Zornotzan jarraituko du. Iaz batu zen klubera, eta hasieratik jokalaririk inportantea izan zen; batez beste, 11 puntu sartu eta 4 errebote eskuratu zituen.



Iraurgi taldean Euskadiko Kopa irabazi zuen iaz, beste txapelketa batzuen artean.



Lasterketako podiuma, segurtasun neurriak jarraituta.

Azkorbebeitiak eta Errastik irabazidute Tabirako mendi lasterketa

Lasterketak harrera ona izan zuen, eta 100 bat korrikalarik parte hartu zuten

DURANGO • JOSEBA DERTEANO
Tabirako Auzo Batzordeak antolatuta, mendi lasterketa lehiatu zuten Durangoko Tabira auzoan, joan zen asteburuan. Emakumeetan Oihana Azkorbebeitia abadiñarra izan zen onena eta gizonetan, berriz, Joxe Mari Errasti oriotarra nagusitu zen.
Estizen Duque muskiztarra sailkatu zen bigarren nesketan, eta Arkaitz Iturriagaetxebarria abadiñarra mutiletan. Nerea Amilibia eta Mikel Usandizaga aiarrek osatu zuten podiuma.
Denek makila dotore bana jaso zuten sari modura, Tabirako au-

zotarrek eginikoak. Aurten ohiko garaikurrak eman beharrean, lasterketa horretako bereizgarria izango den sari bat sortzea erabaki
Estizen Duque eta Arkaitz Iturriagaetxebarria abadiñarra geratu ziren bigarren tokian
zuten eta irabazleek gustura hartu zituzten makilok.
Proba asko bertan behera geratu diren sasioan, 100 bat korrikala-

ri izan zituen joan zen asteburuko lasterketak. Parte hartzaileak talde txikietan irten ziren, pilaketak ekiditzeko.
Mendi ibilbidea
Proba baino ordu bate lehenago, mendi martxari hasiera eman zioten. Martxa horretan parte hartu zutenek ibilbide bi izan zituzten aukeran: 9 kilometrokoa eta 18koa (lasterketako ibilbide bera).
Tabiran giro polita sortu zen eta, antolatzaileek eskatuta, parte hartzaileek zorrotz bete zituzten segurtasun neurriak koronabirusa dela eta.

Jokaldia

Eta hurrengoan, zer?

Aspaldiko! Zer moduz denok? Kalean elkar ikusten dugu eta aspaldian topatu ez garenokin egotean, pozik geratzen naiz, zeren eta badakit aurrera goazela. Batzuek badakit egoera zailak izan dituztela edota jasaten ari direla, gaixotasunagatik, norberaren egoeragatik... baina argi jasotzen dudana da, hau guztia denok gainditu dugula, banaka, 1x1, eta talde jokoan, 5x5.
ACBn Baskoniak, txapelketa irabazi du, eta horrek poztasuna ekarri digu, baina gure inguruko saskibaloian ez dago berri onik. Momentu honetan klubak datorren urteko denboraldia prestatzen ari dira, kirol helburuak argituz, jokalaririk eta entrenatzaileak lotuz... Hainbat gauza, egoera normal batetan gure arteko solasaldiak izanik.



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

"Zornotzan aurreko denboraldiko egoera ez errepikatzeko talde benetan gogorra lantzen ari dira"

"Tabirakon aurreko urteko taldeak izango dituzte oinarri, klubeko gazteak izanik taldeen osagarri"

Baina aurten, horretaz gain, egoerak, beste hainbat arazo eta lan ekarri ditu. Protokolo eta Kantxen erabilera, entrenamendu saioen prestaketa egokia, arlo ekonomikoa... Azken arlo hau, ekonomikoa, zail bihurtzen da, lehen erraza

ez bazan ere. Dena dela, klubak topera dabilta, inork ez die kenduko gure kirolaren alde lan egiteko gogo eta grina. Aurrera!
Zornotzan, aurreko denboraldiko egoera ez errepikatzeko talde benetan gogorra lantzen ari dira. Bizkaiko jokalaririk dira datorren denboraldiko taldearen oinarria. Oinarri gogorra.
Tabirakon, bi taldeek, pasa den urteko taldeak izango dituzte oinarri, klubeko gazteak izanik taldeen osagarri, epe laburrera taldeko oinarri bihurtzeko.
Hurrengo idatzian, honek guztiak izango dituen emaitza onak eta denok partiduetan elkar ikusi dugula jasotzea espero dut. Hori da guztion nahia!
Aurrera Klubak! Aurrera zuzendari-tza taldeak! Aurrera entrenatzaile eta jokalaririk guztiok! Aurrera saskibaloizale guztiok! Denon esku dago!

DURANGALDE



Ertzillako garaia (lurreta)

Iurretako Gaztainatza auzoko Ertzilla Handi baserriaren alboan dagoen garaia nabarmentzekoa da, 1655ean jadanik aipatua eta 1986-87an Bizkaiko Foru Aldundiak berriztua. Bizkaiko kultur ondasuna izendatuta dago.

KO TXOKOAK!



Gerriko koba (1.150 m) Anboto inguruan

Durangaldearen ikuspegi ederra eskaintzen du Gerriko kobak. Anbotoko Mariren kobara bidean dagoen tunelaren ondoan pasabidea dago Mariren kobara joateko.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoetxetxo.com



MATIENA
3 logela
MATIENA: 3 logela, sukalde handia, egongela eta komuna. Terraza. Garajea aukeran. E.E.Z=E Alokairuan erosteko aukerarekin. 600 €
180.000€



ABADIÑO
1.000 m²
ABADIÑO: Lursaila. 1.000 m²-ko hiri-lursaila.
250.000€



DURANGO
2 logela
KIRIKIÑO: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Eguzkitsua. E.E.Z=E
129.000€



DURANGO
3 logela
DURANGO: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. E.E.Z=E
115.000€



DURANGO
3 logela
2 komun
ERMODO: 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela eta eskegitokia. Terraza. 21 m²-ko ganbara. Garaje itxia. E.E.Z=F
290.000€ / NEG.



IURRETA
2 logela
Alokairuan, erosteko aukerarekin. 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. E.E.Z=F
115.000 € / alokairua: 550€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Muruetatorre. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrekin. 3 logela (gela nagusia balkoiagaz), 2 komun, sukalde balkoiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara.
DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m². 4 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.
DURANGO: Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.

DURANGO: eraiki berria. 3 logelako duplexa. Azken etxebizitza salgai. **200.000 €.**

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ELORRIO: Otsa kalea: 4 logela, sukalde balkoiagaz, 2 komun eta egongela. Ganbara. Igogailua. Gasa. Bizitzen sartzeko moduan.

BERRIZ: Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukalde, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. 3.000 m².

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatze. 3 hektareako lursaila. Prezioa: **115.000 €**

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserrria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO: 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



EUBA
3 solairu
10.000 m² lursaila
280 m²
Dudeako San Migel auzoa: Beheko solairua: egongela, 3 logela, komuna eta garaje itxia. Lehenengo solairua: egongela, sukalde, 4 logela, komuna eta terraza. Barrualdea GUZTIZ ERABERRITUTA. E.E.Z: bidean.
265.000€



DURANGO
71 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Eguzkitsua. Garajea eta ganbara. Igogailua. E.E.Z:E.
228.000€



DURANGO
4 logela
95 m²
TRONPERRI KALEA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia, 2 komun eta despentsa. Garajea eta ganbara. Terraza handia eta bizilagunen txokoa. E.E.Z: E
258.000€



Gabiola kalea: 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Egoera ezin hobean. Garajea eta 5 m²-ko trastelekua. Igogailua. E.E.Z:E.
220.000€



ABADIÑO
3 solairu
255 m²
URKIOLA: Sukalde-egongela, 3 logela eta 4 komun. Espazio zabala eta 40m²-ko garaje itxia. 1.300 m²-ko bizilagunen lorategia. Argitsua. C.E.E:D
248.000€



ABADIÑO
2 logela
55,9 m²
ABADIÑO: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Argitsua. 13,16 m²-ko garajea eta 8,26m²-ko trastelekua. Igogailua. E.E.Z:D.
170.000€

//DURANGO

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **205.000 € / E.E.Z=E**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. **237.500 € / E.E.Z=E**

ERRETENTXU: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukalde, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

SASIKOA: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000 € / E.E.Z= E**

TXATXIENA: 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. 390.000 € / E.E.Z=E / ORAIN **375.000 € / E.E.Z=E**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukalde, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 € / E.E.Z =E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukalde balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

MURGOITIO KALEA: Etxebizitza bitan banatutako baserrria lursailagaz. **290.000 €.**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000 € E.E.Z=E**

//MAÑARIA

ARRUETA AUZOA: Berreraikitze baimenagaz. 220.000 €.

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukalde, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000 € / E.E.Z=F**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukalde, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **220.000 € /E.E.Z =E**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.Z=F**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukalde, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000 € E.E.Z=Bidean**



Botikak

BARIKUA, 17
- 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo
2 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 18
- 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 -
DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22 -
DURANGO

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6 - **ELORRIO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 19
- 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 20
- 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 21
- 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 22
- 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 23
- 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 -
DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak **Argia!** Musu potoloa aitatxo ta amatxoren partez.

Atzo etxeko bihurrixenak 2 urte bete ebazen. Zorixonak etxeko danon partez eta egun eder bat pasau izena espero dogu. Segi zaren modukue izeten! Mosu bat!

Uztailaren 13an **Lucian** urtegune izen da, zorixonak neska handi! Etxeko danon partez besarkada handi bat.

Azken aldixen kuadrillan ospakizunek pilatzen dabiz. Bazkari baterako egune ipinteko ordue da, ezta? Aah, ixe ahaztu ein iakule, zorionak eta 27 mosu potolo Etxenausire!

Zorionak **Nikole** zure 4. urtebete-tzean! Primeran ospatuko doguz asteburu honetan pastel handi bate-gaz! Musu handi bat maite zaitugun guztion partez, bereziki, Eleneren partez!

Eguraldia

ZAPATUA 27° / 17° ☁

DOMEKA 29° / 16° ☀

ASTELEHENA 27° / 17° ☀

MARTITZENA 26° / 16° ☀

EGUAZTENA 27° / 16° ☀

EGUENA 34° / 15° ☀

Ekaitzaren ostean argiuneak zabaltzen direlako.
Momentu txarrenetan ere geure onena emon geinkelako.
Herri txikia izanda ere geure txikitasunean biziguraz betiek izan bagarelako.

biziguraz betie!

Otxandioko udala



Rober Oriondo Etxabe
(Durango, 1971) eta
Sally Cristopher
(Irlanda, 1957)
B&B Eguzki

"Ezkontza-eske baten testigu izan nintzen Axpera igotzen gindoazela"

Durango, Abadiño, Elorrio, Garai eta Atxondo tuk-tukean bisitatzeko aukera zabaldu dute

DURANGO • AITZIBER BASAURI

B&B Eguzki etxe turistikoa dute Sally eta Roberrek Durangon. Nazioarteko makina bat bisitari hartu dituzte etxean urteetan, eta Durangaldeko bazterrek tuk-tukean bisitatzeko aukera eskaini diete. Orain, esperientzia hori bizi gura duten guztxi zabaldu diete eskaintza. Lau ibilbide zirkular antolatu dituzte.

Durangaldea ezagutzeko beste modu bat da eskaini gura duzuen?

Rober: Apopiloen artean arrakasta izan du beti tuk-tukak. Bada, eskaintza zabaltzeko aukera ikusi genuen. Helburua da tuk-tukean bidaiatzeko esperientzia ematea, oso ezezaguna den gure ingurua ezagutzeko. Ekonomia zirkularra eta Km0 kontzeptuak hainbat

arlotara zabaldu daitezke, baita turismora ere. Horregatik, bisitariak hemen geratzera, bertan gastatzera animatzen ditugu. Gainera, COVID 19-aren krisiagaz, hemen dugunagaz disfrutatzeko aukera ona izan liteke bertakoentzat ere.

Tuk-tukean pasarte bereziak bizi izan dituzue...

Rober: Etxean ostatu hartuta zegoen bikote baten ezkontza-eskearen testigu izan nintzen tuk-tukean behin. Axpera igotzen gindoazela, gelditzeko eskatu zidan senargaiak, tuk-tuketik jaitsi eta ezkontzeko eskatu zion emaztegaiari. Harrituta nengoen. Gure egunerotasunean ere erabiltzen dugu tuk-tuka, eta askotan gelditu naute tuk-tukagaz argazkiak ateratzeko, esaterako.

Sally: Poztasuna ematen du! Esperientzia dibertigarria da.

Durangaldea turistikoki butzatu egin behar dela uste duzue?

Rober: Bai, turismo iraunkorra; bisitariak eta bertokoak elkarrekin partekatuko dutena. Durangaldea oso leku onean dago, eta gurera datozen turistek etxea base lez erabiltzen dute, beste leku batzuetara joateko. Egun bat bada ere, eskualdea ezagutzeko gorde dezaten

"Gurean dugunagaz disfrutatzeko aukera ona izan liteke bertakoentzat ere"

ROBER ORIONDO

saiatzen gara. Dugunagaz harrituta geratzen dira beti.

Zerk harritzen ditu gehien?

Rober: Elorriok, Urkiolako parke naturalak edo Durangoko Andra Mariko elizpeak, eta Durangoko historiak ere bai. Euskaragatik ere asko galdetzen dute, eta gastronomiaren kalitateak harritzen ditu.

Nola aurreikusi duzue aurten uda?

Sally: Ia beteta genuen uda osoa, eta COVID 19-aren eraginez erreserba guztiak jausi dira. Baina, bagabiltza berreskuratzen. Batzuek datorren urtera arte atzeratu dute. Zalantza handiko egoera da. Europarrak, estatubatuarrek, kanadiarrek edo Zeelanda Berriko bisitariak izaten ditugu; diasporakoak ere bai, Uruguai edo Kaliforniatik (AEB) etorritakoak. Aurten, Espainiakoak eta Euskal Herrikoak dira gehienak.

Rober: Gertuko giro eta harremana, naturala sortzen saiatzen gara, eta asko ikasi dugu eurekin. Etxera etorritako maori batzuen oso lagun egin ginen. Maoria berreskuratzeko lehen pausoak ematen lan egiten zuen batek unibertsitatean, eta ikastolen ereduak harritu zuen.

Lau hortza

Amaia
Ugalde
Kazetaria



Maskaren atzean

Horrelakorik! Duela hilabete batzuk, Tokio aldean jendea hipokondriaz bizi zela uste nuen maskara jantzita ibiltzen zirelako metroan, eta orain, ez daki-gu noiz arte, ia edonora joateko jantzi behar dugu musukoa. Ohiko bihurtuko da gure kaleetako paisaia; praka motzekin, sandaliek, eta eguzkitako betaurrekoekin, udan soinean eroateko beste elementu bat.

Bada, konturatu naiz zein lasaigarria den pertsonen aurpegi osoa ikustea; aurrekoen begiez gain ahoko espresioa ere agerian izatea zein beharrezkoa dudan besteak hobeto ulertzeko. Aurpegiko 43 muskuluen bidez adierazten dugu gustura gauden edo nekatuta, transmititu dezakegu ondokoak esan duenarekin ados gauden edo lelokeria bat iruditzen zaigun, eta maskara jantzita zailagoa da begirunea, lasaitasuna edo kezka transmititzea.

Azken asteotan mitinez mitin ibili diren politikariek mikrofono aurrera heldutakoan kendu dute maskara. Maskaretako bat bai, kendu dute; beste bat izaten baitute soinean, eta ez da belarrietatik helduta jartzen diren horietakoa. Musuko ikusezinen babesean, autoestimuhandiko pertsona bihurtzen dira, autokritika bako kudeatzaile, beti arrazoia duten predikari.

Katamalo horiek jantzita ezin dira, adibidez, honelakoak esan: "okertu egin nintzen", "ez dugu beti asmatu", "egoera honek gauza asko ikastera eroan gaitu, eta hemendik aurrera erabaki zuzenagoak hartuko ditugula uste dugu". Eta uste dut, tarteka, horrelako esaldiak entzuteko premia daukagula. Politikariek maskara erantzi eta atzean duten aurpegiera ikusiko bagenu, orduan bai, izango lirateke sinisgarri.

iragarki
laburrak
.eus